

KONTXA PASEALEKUKO ARGAZKIAN PARTE HARTU, MUGIKORTASUN IRAUNKORRAGOA BULTZATZEKO

Irailaren 19 goizean (igandea da 19a), Mugikortasun Iraunkorraren Europako Astearen barruan, ekintza bat egin behar du Donostiako Udaleko Mugikortasun Departamentuak hiriaren erdigunean bertan, garraio-modu sostengagarriek automobil partikularren ondoan dituzten alde onak erakusteko

Kontxa pasealekua garraio-bide desberdinez hartu behar ditugu (autobusez, kotxez eta oinezkoz), eta argazkiak atera behar dizkiogu garraio-modu bakoitzari. Horrela, garraio-modu bakoitzak kalean zenbat toki hartu behar izaten duen erakutsi nahi dugu. Horretarako, 99 automobil eta 120 oinezko/bizikletazale/patinatzaile... behar ditugu. Helburu nagusia jendeak garraio-modu sostengagarriak erabiltzeak zenbateko garrantzia duen kontzientzia hartzea da; izan ere, egurats eta soinu kutsadura, trafikoa, istripuak eta zirkulazio partikularrentzat behar den tokia murriztea lortzen baita horrela.

Lehen esan dugun bezala, erakustaldia irailaren 19an (igandea) izango da, goizeko 10etatik 11:30era.

NOLA HARTU PARTE

Kotxea badaukazu, eta ekimen honetan parte hartu nahi baduzu, nahikoa duzu **Donostiabuse**n arreta telefonora (943 000 200) hots egitea.

Datu hauek eman behar dituzu:

- Izen-abizenak
- Ibilgailuaren modeloa eta matrikula
- Eskuko telefonoaren zenbakia eta helbide elektronikoa
- Zenbat lagunek parte hartu nahi duzuen

(Motorrik gabeko mugikortasunaren argazkian ateratzeko, bizikleta, patina, patineta... ere ekar dezakezu).

